

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Bezero bakoitzari arreta pertsonalizatua ematea gustatzen zaigu, bezeroaren kontsultak azkar eta eraginkortasunez konponduta gera daitezen. Horretarako, gure **bezero-arretarako taldea** pozik egongo dira bezeroaren beharrei erantzuteaz eta ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeaz.

Bezeroarekikoharremanetan erreparatuz, erlazio pertsonala baita zerbitzu automatizatuen bitartez ere izatea nahi dugu;

- **Erlazio pertsonalak:** Bezeroen nahiak asetzeko prest egongo gara baita arazoak konpontzeko prest modu pertsonal batean. Horretarako, ordutegi zehatz bat egongo da: Astelehenetik Ostiralera goizeko 9.00etatik eguerdiko 13.00ak arte eta arratsaldetan 16.00etatik 19.00ak arte. Asteburuetan larunbatean 9.00etatik eguerdiko 13.00ak arte.  
0
- **Zerbitzu automatizatuak:**
  - **Telefono bidezko erlazioa:** Ordutegi barnean erlazio pertsonaletan azaldutako ordutegi berdinean, eta gainontzeko orduetan bezeroak erantzungailuan utzi beharko du bere deia eta enpresak posible duen momentuan erantzungo dio.
  - **Whats app bidez:** Whats app bidez bezeroak behar duen edozer gauzaren eskaera edo komentarioa egiteko aukera izango du.
  - **Emaila bitartez:** Email bitartez bezeroak behar duen edozer gauzaren eskaera edo komentarioa egiteko aukera izango du.
  - **Kontakturako formularioa:** Bezeroak bere izena eta bestelako datu pertsonal batzuk jarrita enpresari mezu bat bidaltzeko aukera izango du.

Bezeroak enpresarekin harremanetan jartzeko dituen aukera guzti hoiak enpresaren web- orrian agertuko dira. Modu horretan, bezeroak enpresari eskaerak egiteko aukera izango du bai modu automatizatuaren bitartez bai erlazio pertsonalen bitartez.

Bestalde, bezeroei eskain diezazkiekegun gauza bereziak ere badauzkagu: Birziklatzeko tailerrak, ordaindutako ditu kopuru batetik pasatzean, opari bat eskaintzea, hainbat motatako deskontuak, promozio bereziak....

**Bezeroak nola ordainduko dute:** Diru metalikoaren bidez, kreditu txartelaren bidez, transferentziaren bidez, gure web orriaren bidez edota PayPal-en bidez. Eta zerbitzua egin aurretik ordaintzen da, ez ordaintzeak eta beherakortasuna baztertzeko.

